

**SABIN SALABERRI URZELAI
(PERTSONA, BIZITZA, LANA)**

0. AURZKEPENA

Aurtengo apirilaren 20an, eguerdiko 12etan omenaldi hunkigarria egin diote Sabin Salberri Urzelai euskal musikologoari bere jaioterrian, Aramaion. Ekitaldi horretan eman zioten eskura Eusko Ikaskuntzak iaz onartutako *Manuel Lekuona Saria 2007*.

Aspalditik ezaguna dudan nire herritarrari eskaini nahi dizkiot lerro hauek, bizitza osoan zehar jo eta ke kultura-alorretan lanean jardun izan duten horrelako pertsonak eredugarri ere izaten ditugulako.

Aparteko handitasunik gabe, baina ezinbestekoak esan eta ageriko eginik burutu zen aipaturiko ekitaldi hori. Bertan izan ziren oso apain jarrita zegoen taulatu gainean, protagonista nagusiak: Eusko Ikaskuntzako burua, Aramaioko alkatea, Arabako Diputatu Nagusia eta Sabinen bizitza idatzi berri duen Josemari Velez de Mendizabal Azkarraga aramioarra. Atsegin ez egin zuen Sabinen bizitzaren aurkezpena. Berari zor dizkiot hurrengo lerroetan jasotzen ditudan datuak.

Hori horrela, besterik gabe, atsegin handiz, gure aramaiorren bizitzako gorabeherak eta egindako lanaren laburpena jarriko dizkizuet aurrez aurre KARMEL aldizkari honetako irakurleon gose-egarriak asetzeko.

1. DATU BIOGRAFIKOAK

Haurtzaroa

Sabin Salaberri Urzelai 1934ko abuztuaren 20an jaio zen Arabako Aramaion. Joxe “Karnizero” Salaberri eta Kattalin “Montero” Urzelai senar-emazteen hamar seme-alabetarik gazteena dugu. Ama Kattalinek umea izan eta biharamunean batiatu zuten Sabin Aramaioko elizan

Sabin bi urte betetzeko zela gerra piztu zen eta frankistak Aramaiora sartu aurretik Pako eta Juan bere anaiak frontera abiatu ziren Euzkadi defendatzera. Aramaio okupatua izan zen egunean ihes egin zuen aitak Bizkaira. Handik Frantziara; ge-roago, Bartzelonara. Handik Aramaiora itzuli ahal izan zuen gaixorik eta zigortuta, Arrasateko kapitán erreketen baten laguntzaz. Ez zen suspertu eta 1941eko otsailaren 21ean hil zen.

Sabinen gurasoak hainbat etxetan bizi izan ziren, aitajauna hiltzean izeko Luisaren plazako etxera behin betiko aldatu ziren arte. Izeko horrek loba kutuntzat zuen etxeokoen “Sabin-txo” deitzen zuten mutikoa. Sendiaren ekonomiak behartuta, ama lanean hasi zen Aramaion Norberto Jauregik irekitako harategian eta artean etxean bizi ziren seme nagusiak hemen eta han kolokatu zituen, batzuk morroi gisa eta beste batzuk Arrasateko lantegietan.

Udal eskola udaletxean bertan zegoen. Joaquin Arana izan zen Sabinen lehen maisua. Honek jarri zuen lehen aldiz gure mutikoa musika bidean. Eskola horretan lagun oso onak egin zituen.

Oso atsegin izaten zuen irakurtzea nahiz margotzea. Gogo handiz irakurri zituen Emilio Salgari eta Julio Verne idazleen liburu batzuk, gauza berriak asmatzeko gogo bizia sortzen ziotelarik. “Doctor Tximista” deitzen zioten asmatzeko zuen trebetasuna gorai patuz.

Garai hartan Sabinekin elizmutil funtzioak burutzen zituen Aramaioko elizan. Horrela musika ikasteko aukera izan zuen.

MANUEL LEKUJONA Sarria
Premio MANUEL LEKUJONA




**EUSKO
IKASKUNTZA**

90

1918-2008

**Sabin
Salaberri
Urzelai**



25

Solfeo klaseak Andres Agirrek eman zizkion eta Fidel Ibargutxi herriko apaiz lagunkideak irakatsi zizkion pianoaren sekretuak. Kontzertu txikiak eta ematen jarduten zen lagunekin.

Hamalau urte bete berri zituela “*Abade noie*” esan etxekoei eta Laguardiako Apaizgaitegira joan zen.

Apaiz ikasketak

Lehenengo, 1948an, Laguardiako apaizgaitegira. Hango egonaldiak mesede egin zion osasunean, bronkitiserako joera desagertu baitzitzaion betiko. Jarraian Gaztelu-Elexabeitiako apaizgaitegi txikira. Hemen zegoela Artea herriko elizan igandetan organoa jotzen eta liburutegiko piano ederrean praktikak egiten utzi zioten. Bertan egin zuen bere lehen obratxoa 1950ean.

Handik Gasteizeko etxe nagusira 1951-52. ikasturtean. Zazpi ehun ikasle inguru ari ziren ikasturte hartan. Bertan adiskide min asko egin zituen, besteak beste, Felix Plazer Ugarte teologo ezaguna. Honek dio: “*Ordudanik 1960an apaiz egin ginen arte ikasketak, abestiak, jolasak, otoitzak eta, batez ere, adiskidantza partekatu genituen*”

Oso ikasle ona izan zen Sabin. Eta hala azpimarratzen dute, urte haietan ezagutu zuten guztiek. Hala ere, Jesus Mari Elejalde herrikideak gogoratzen du Sabini kostatu egin zitzaiola ikasketetan zentratzea. Honen iritziz Sabin bizitzaz maitemintzen zihoan, ikasketetan barrena deskubrimendu berriak egiten zituen heinean. Eta karrerako gaietatik aparteko beste batzuetara sartu-irten grinatsuak burutu zituen: “*Haur maitagarri eta apalak aurrera egin zuen eta sasoi batean matematika eta fisikarekin buru-belarri aritu zen.*”

Felix Plazerrek honako hau diosku: “*Sabinek bere pasio guztia musikan jartzen zuen eta gure izpirituan sentimendu bera piztu nahi zuen*”. Horrela, 1953ko maiatzaren 26an Pianoko Akademiaren ikasleek kontzertu bat eskaini zutenean bertan izan zen Sabin ere, Mozart eta Rachmaninoffen obrak interpre-

tatuz. Sabinekin gogoratzen duen bezala “*Apaiizgaitegian musika ez zen txantxetako gaia, garrantzi handia ematen zion materia baizik...*” Musika zaletasun horrek bultzaturik oporretan “infernuko hauspoa” jotzen ikasi zuen. Geroago, txistua jotzen ere bai, apaizgaitegian txistulari banda bat sortuz.

1955ean Francisco Peralta Gasteizko gotzain eta Anjel Sukia apaizgaitegiko errektore izendatzeak eragin handia izan zuen Sabinen bizitzan, hain zuzen ere, euskararen etsai amorratuak izatean hainbat arazo sortu zizkiotelako euskararen aldeko bere jardunean.

Teologiako irakasleen artean, gerora gotzainak izango ziren lau aipa ditzakegu: Jose Maria Zirarda, Angel Sukia, Luis Maria Larrea eta Jose Maria Setien. Beste zenbait irakasle ere gogoan ditu Sabinekin, baina biri aitortzen dizkie aparteko hitzak. Bereauek Leoncio Arabiotorre eta, batez ere, Julio Valdes Goikoe-txea dira. “*Maitagarriak ziren biak*” dio aramaioarrak. Lehengoarekin biologia ikasi zuen, eboluzionismoaren oinarriak barne, eta Valdesekin musika: “*Armoniaz dakidan guztia berekin ikasi nuen*”

Sabinen musika maila nolako altura hartzen ari zen ideia hobe egiteko, aipa dezagun teologiako lehen kurtsotik (1956-57) Kantu Gregorianoko klaseak eman zizkiela bere ikaskideei.

Pianoa, organoa, txistua eta akordeoia dira Sabinekin erabilitako instrumentuetako batzuk, balantzak aurrenekoaren alde egiten badu ere, nabarmen gainera. “*Baina ez naiz instrumentista ona izan. Ez naiz kontzertu bat emateko gai inoiz sentitu. Oso urduri ipintzen nau publikoaren aurrera atera behar dudala pentsatze soilak. Alde horretatik, gauza bera gertatzen zitzaien nire piano irakasle bikaina izan zen Tomas Etxabarriri*”

Aparteko lagun batzuk (Felix Plazer Ugarte, Javier Bengoa, Jose Enrike Ayarra eta, jakina, Jesus Mari Elejalde aramaioarra) zituen arren, besteekin ere ongi moldatzen zen. Kazetari batek esan zion behin: “*Zure lagunek diotenez gizon ona eta zintzoa*

zara”. Honako hau erantzun zion Sabineek: “*Guztiek bezala, lagunak eta etsaiak ditut eta zuk, antza denez, lagunekin bakkarik hitz egin duzu. Nire gogoetak eta ideiak ez ditut inoiz ezkutatatu. Esaterako, nire euskaltasuna abazteko eskaini didate eta noski, ez dut borrelakorik onartu. Araba mailan politikaria izatea ere eskaini didate eta baztertu dut (...). Beti oso argi izan dut zein zen nire bidea. Gaztea nintzela biologia ikasteko gomendatu ninduten eta ni, burugogor, ezetz, musika zela nirea*”

Ultzera gastrikoa izan zuen 1955ean eta horren ondorioz 1958-59. ikasturtean hiru hilabete egin behar izan zituen etxean. Garai hartan ekin zion goi mendietako abenturari, kirolak osasuna suspertzea ekarriko ziolakoan.

Teologia 1959-60. ikasturtean amaitu zuen, kalifikazio dirdiratsuak lortuz: bi “meritissimus summa cum laude”; hiru “meritissimus cum laude”; eta “meritissimus” bat. “Universa Theologia”-ren gaineko azterketan “meritissimus cum laude” lortu zuen. Horren ondorioz Teologia Sakratuari buruzko Batxiler-gradua eskuratu zuen “Magna cum laude probatus” kalifikazioarekin.

Handik zenbait urtetara (1974-75 eta 1975-76) Historia-Patristika adarreko ikasketak burutu zituen, irakasleen artean Jose Ignacio Telletxea Idigoras nabarmentzen duelarik. Eta lizentziatura prestatu zuen “*Vicente Goicoechea y Errasti, renovador de la música religiosa española*” gaia hautatu, eta hainbat artxi-bo zehatz-mehatz arakatuz.

Apaiz lanetan

Teologiako ikasketak gaindituta, 1960ko abuztuaren 14an apaiztu zen. Biharamunean eman zuen lehen meza Aramaion. Azaldu ezinezkoa izan zen amaren eta etxekoen poza. Hilabete eta erdi Gesalibarren aritu ondoren, 1960-61. ikasturterako apaizgaitegiko irakasle izendatu zuten, bere ardurapean geratu zelarik musika arloa. Horrela, Sabin zuzendari zuela, 1906an sortutako *Schola Cantorum* ospetsuak garai berri onuratsuak ezagutu zituen.



Aramaio, 1999. Aramaioko seme kuttuna izendatu zuten egunean.

Musikaz gain, literatura, fisika, kimika eta grekoa ere irakatsi zituen sarritan. Klaseak ahalik eta praktikoenak egiten ahalegintzen zela, eta teorizazio hutsetik ihes egiten zuela diote bere ikasle izandakoek. Fisika eta Kimika klaseak eman zituen urteetan, bere esperimenduekin jarraituz irrati bat ipini zuen martxan.

Mendizaletasunak naturaganako identifikazioa sortu zuen berarengan, eta begirunez erabili izan du natura gaia bere lanetan. Zaletasun horrek bultzaturik, Javier Uriarte apaiz lagunarekin batera, apaizgaitegiko lur eremuan zuhaitzak landatzen eta loreak hazten jardun izan zuen.

Bazuen Sabineek beste kezka bat, erraiak zulatzen zizkiona, hots, euskara. Apaizgaitegiko elizkizunetan abesti bakar bat egiten zen euskaraz, “*Agur Jesusen Ama*”, alegia. Eta berari euskararen presentzia gehitu egin behar zela iruditu zitzaion. Luis Maria Larrea alde zeukan arren, zeharo kontra agertu zen Angel Sukia erretorea. Hala ere, aurrera egin zuen musikako perfektuak, eta Aita Madinaren Abe Mariaren bat eta Aita Donostiaren beste abestiren bat ere sartu zituen euskal erreperatorioan.

Laguntza handia eman zien Iñaxio Oñatibia eta Angel Arandia apaiz gipuzkoarrei Gasteizko Brigida mojetan euskal meza abian jarri zutenean. Sukia errektoreak eta Peralta gotzainak debekatu egin zioten bertan parte hartzea. Hala ere, aurrera egin zuen eta Brigidetatik Erreparadoreetara igaro ziren mezetarako abesti berriak sortzeko eraturako taldean jardun zuen, Luis Aranburu eta Emiliano Ibargutxi musikariekin batera.

Vatikanoko Kontzilioak herri hizkuntzen liturgian lekua egin ondoren Euskal Herrian eratu zen musika-batzordeko kide izan zen, buru-belarri lan eginez. Emaitarik ederrena *Gure Aita* dugu.

Batez ere *Schola Cantorum*-ekin burutzen ari zen lanari esker Sabinen izena Euskal Herri osoan ezagun egiten hasi zen. Eta 1962an antolatutako Euskal Herriko Otxoteen I Txapelketaren epai mahairako deitu zuten. Aramaioko zortzikotea (1962)

prestatu zuen, herriaren izena Euskal Herri osoan zehar ezaguna egin zuelarik. Horrela, bat-batean, Francisco Escudero, Tomas Garbizu, Martin Lipuzkoa, Antxon Larrauri, Javier Bello Portu, Juan Arzamendi eta horien gisako musikariren artean egotea ekarri zion, eta horrek harremanen sarea handiagotu zion.

Gotzaina kontra egon arren -fisika karrera egin zezala nahi zuen-, musika karrera egiten hasi zen. Bilboko Goi Kontserbatorioan lortu zuen Pianoko titulua. Solfeoko bost urteak Gasteizko Kontserbatorioan azterketa bakar batean gainditu ondoren, Luis Aranburu maisuarekin landu zuen instrumentua eta 1967ko irailean eskuratu zuen titulua.

1968an bere "Itsasoetan" kantak lehen saria lortu zuen Arabako Aurrezki Kutxak antolatutako abesbatza lehiaketan. Horrek zalantza guztiak ezabatu zizkion, eta gorpuz eta arimaz ekin zion musikako goi ikasketen karrerari. Horretarako Francisco Escuderoren eskuetan jarri zen Donostian eta bost urtez aritu zen harmonia, kontrapuntu eta konposizioaren ezkutukoak dezifratzen.

Formazio humanistikoa sakontzeko udako oporraldi batzuk Alemaniara joateko erabili zituen. Alemana ikasteaz gainera, kultura desberdineko zutabeak ezagutzeko parada eman zioten egonaldi haiek. Ezin izan zuen hara joaten jarraitu, aita Bastarrikak dei egindako Estibalitzeko bilera batean parte hartzearen ondorioz pasaportea kendu ziotelako.

1968an *Araba Abesbatza* sortzean zuzendaritza Sabin Salaberriri eskaini zioten. Sabin buru-belarri ari zen euskalgintzak Araban adierazten zuen mugimendu guztietan. Beraz, lehen unetik Abesbatzak konposizio berriak erabili zituen eta euskaraz abesten zuen. Arabako Diputazioaren babesa izateak asko erraztu zion bidea. Kantuen letrak eskuratzeko Eusebio Osa agustindarraren laguntza izan zuen; Sabinekin eta harenak dira "*Gurea da*", "*Gora Araba*" eta beste batzuk. Osaren esanetan "*iraultza txoriekin nahasten nuen garaiko kontuak*" ziren haiek. Dena den, *Araba Abesbatza* kuttunena izan badu ere,

Sabinek harreman handia izan du *Samaniego Abesbatzarekin* ere. Askotan zuzendu du taldea.

Ahots lengoaia txikitatik landu zuen Sabinek eta horrek egoki lagundu dio aramaioarrari bere ibilbide profesionalean. Sagastumeren esanetan: “*Abesbatzatarako Sabinen obra meritu handikoa da. Musikaria izan da, pieza osokoa. Teknika handiko zuzendaria dugu eta abeslariengandik zer espero zuen jakin izan du transmititzen.*”

Araba Abesbatzarentzat jaialdiak, kantu emanaldiak eta heriz herriko joan etorriak zirela eta, Peralta Gotzainak “ordena- ra” etortzeko deiari muzin eginez, bidegabekeria hutsa baitzen, *Araba Abesbatzari* osagarri instrumentala falta zitzaiola pentsatu zuen. Ondorioz, hutsune hori betetzeko *Amets taldea* gauzatu zuen 1971n. Giro euskaldun ‘fribolagoa’ piztu zen, beraz, arabar inguruan.

Krisialdia

Urteak aurrera egin ahala, Sabin deseroso sentitzen hasi zen, batez ere eliz agintariek euskararen eta euskal kulturaren aurka jardunez bere lanari oztupoak baino ez zizkiotela jartzen ikusirik. Eta jakina, hainbat tirabiraren ostean etena gertatu zen. Katalizatzailea Gasteizeko katedral berriaren inaugurazioa izan zen. Peralta Gotzainak apaizgaitegiko *Schola Cantorum* ospetsuak Franco jeneralaren aurrean parte hartzea nahi zuen. Sabin desagertu egin zen 1968-1969. ikasturtea San Juan jaiko kontzertuarekin amaitu bezain laster. Bila ibili ziren arren, ez zuten aurkitu.

1969ko irailaren 24an, katedrala inauguratu zen egunean, Sabin Salaberrik ez zuen apaizgaitegiko abesbatza zuzendu. “*Niretzat gehiegi zen, Euskal Herria zanpatua zeukan diktadorearen aurrean aritu behar izatea! Nabiago izan nuen krisia eragitea, jakin bainekien nire jarrera bark ondorioak ekarriko zizkidala. Baina, agian, apurketak argia ekar diezadakeen...*”

Nik uste dut nire barne eraikina sendotu zuela deliberamendu bark eta luzarora osasuntsua gertatu zen...”

Ordurako Sabinen baitan agerian ziren krisi erlijiosoaren lehen itzalak. Apaizgaitegian klaseak ematen jarraitzen zuen eta oporraldiak, besteak beste, kirola egiteko erabiltzen zituen. Mendizalea zen eta hainbat irteera egin zituen Pirinioetara, Alpeetara... halako batean, 1979ko ekainean, Pepe Manzana adiskidea hil zitzaion istripuz, Midi d'Ossau mendian. Sabin guztiz minduta geratu zen galera harekin eta harrez geroztik apaldu egin zuen bere ibilaldien gogortasuna.

Oso urte ezeroso horietan musika izan zuen babesleku eta sostengu. Hala ere ezin iraun luzaroan tirabira horretan. 1975ean harmonia-klaseak emateari ekin zion Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan, Luis Aranburu zuzendari zelarik. Urtebete geroagoko Gasteizko martxoaren 3ko gertaera latzek dardara handia sorrarazi zuten apaizaren sentimenduen eraikinean, eta dagoeneko barne orekarik eskaintzen ez zion eliz bizi-tza uztea erabaki zuen. Hala eskatu zuen, *“Kristau bezala, inor ez gorrotatzeko betebeharra nuela argudiatuz, eta – tamalez-Gotzaina gorrotatzeko arriskuan nengoela”*. Aurki eman zioten erantzuna: libre geratzen zen elizarekiko loturetatik.

Bizimodu zibila

Apaiz izatea utzita, irakaskuntza zibilari lotu zitzaion. Horrela, Kontserbatorioko betebeharrari Olabide Ikastolako lana gehitu zion Sabinekin, bertan hasi baitzen 1977-78. ikasturtean irakasle lanetan. Lehen bi urteetan, musikaz aparte irakaskuntza orokorreko beste gai batzuk ere eman zituen. Ondorengo hiru urteetan Filosofia eta hizkuntza klasikoak erakutsi zituen batxiler mailan. Javier Onandia irakaslearekin batera elektronikak tailer bat ere sortu zuen.

Araba Abesbatzako Jesus Mari Estarrona adiskideak aurkezturik ezagutu zuen bere emaztea izango zen Sabini Zuriñe Ga-

ro. Ezkongaietan bi urte inguru ibili ondoren, 1979ko uztailaren 31n ezkondu ziren Oroko Santutegian, bere adiskide Felix Plazer Ugarte apaiza lekuko zuelarik.

1981ean Gasteizko Kontserbatorioan Luis Aranburu jubilatu zenean, Carmelo Bernaola jarri zuten zuzendari, eta honek Sabin izendatu zuen zentroko ikasketa buru. Itxura denez, Bernaolari ez zitzaion gustatzen ‘Kontserbatorio’ izena -“*musika ez da kontserbatu behar!*” esan ohi zuela diote- eta zuzendaritzako bikote berriak “*Escuela de Música Jesus Guridi Eres Ikastola*” bataiatu zuten zentroa. Bien artean bide berrietara ekarri zuten.

Bikotea bikain aritu zen beti. 1991n Bernaolak kargua utzi zuenean, Sabin izendatu zuten zuzendari. Garai horretan lan oparoa burutu zuen: “*denboraldi batean Araba osoko musika irakaskuntzaz arduratu nintzen, Kontserbatorioan, Udal Musika Eskolan eta Diputazioaren programazioan.(...) Gasteizko Udalaren ekimenaz eta orduko alkate Jose Angel Cuedaren eskari zuzenaren ondorioz, ‘Gasteizko Orkestra Gaztea’ litekeenaren proiektua prestatu nuen 1993an.*

Sabinek Kontserbatorioko zuzendaritza utzi zuenean lasaie-ago aritu ahal izan zuen bere gustuko musika konposatzen eta karguak eragozten zizkion proiektuak bideratzen. Lan profesionalaren erantzukizunetik aske egon arren, musikatik urruti ezin bizi, eta hamaikatxo asmo bete ahal izan ditu 2001etik honantz. Horra hor, adibidez, 2003an sortutako “*Camerata Gasteiz*” sokako taldea. Era berean, Arabako Nazioarteko Abesbatzen Astea delakoaren zuzendari artistikoa izan dela 1984tik.

Bere obrari buruz honako hauek esaten dizkigu: “*Konposizio lana izan dut batez ere atsegin nire musika karreran.(...) Konposiziorako intuizioa nuela uste dut, eta urteekin gogoz landu dudana diziplina izan da. Apaizgaitegian Julio Valdese-kin ikasi nuen sasoiari abesti batzuk prestatu nituen Aramaio-ko eliza abesbatzarentzat. Bai, abesbatza musika izan da hoberen menderatu dudana.*

*Nik badakit nire formazioa tradizionala dela eta musika-
ren azken joerak urruti samarretik jarraitu ditudala. Alde ho-
rretatik, hutsuneak nabaritu ditut nire baitan. Baina artisau
bezala aritu izan naiz lanean, jo eta ke isilean, eta horrek
hurbiltasuna eman dio urtetako emaitzari. Harmonia izan
dut alderdi indartsua eta sakontasuna eskaini diot obrari. Ins-
pirazioak gebienetan lanean barrapatu nau.*

*Musika sentitzen dut, sakon, eta horrek laguntzen dit espre-
sioan. Orkestra batekin zuzendari lanetan ari naizenean, ba-
tutapean ditudanek nik zer nahi dudan berehala dakitela esa-
ten dute. Abesbatzarekin batuta soberan daukat, eskuarekin
ondorio berdina lortzen dut eta. Carmelo Bernaolak beti lau-
datu zuen zuzentzeko dudan estiloa.*

*Niretzat musika magia antzeko zerbait da. Txikitatik nire
izaeran itsatsita egon den sentsazio atsegina da, bizitzari au-
rre egin abal izateko era ederrean laguntzen dizuna. Poz
bandiak eman dizkit, batez ere izan ditudan ikasleak goi mai-
lako lantegietan ikustean.*

Lan oparo hori zela eta izendatu zuen Aramaioko udalak
bertako seme kutun 1998ko urriaren 14an, eta urrezko domina
eta oroigarria eman 1999ko irailaren 26an. *Eusko Ikaskuntzak
Manuel Lekuona Saria 2007* eskaintzean ohorezko errekonozit-
mendua egin nahi izan zion, beste erakunde batzuek aurretik
egin zioten bezalatsu. San Fernando Artederretako Akademia-
ren Kidea da 1996tik. “Urrezko Zeledoia” eman zitzaion
2006an. Bestalde, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen eta
Eusko Ikaskuntzaren kidea da.

Bere bizitza eta asmoei buruz esateko ugari dagoen arren,
hona hemen lantxo honi amaiera emateko Felix Plazer bere
adiskide minaren hitzak: “*Sabinen bizitza lan eta zaletasunen
kontzertu harmoniatsu bat izan da eta oraindik ere da, bere
giza kalitateak modulatu eta bere sentsibilitate estetikoak eta
bokazio musikalak zuzendua, Ama Lur ederrean esperimenta-
tua. Aramaio sinfonia musikal baten antzekoa baita, bere ze-*

lai berde, mendi goi, baserri eta auzoek abestuta, Anboto, Orixol, Izpizte eta Udalaitez enmarkatzen duten eszenategi zirrargarrian entzuten den pentagramako notek lotuta, eta Bethoven zein Mussorgskyri artzain-sinfonia bat inspiratu liezaiokeena, sorginen gau bat, besteen artean Mari “Anbotoko damea”-k bere adats horia orrazten duelarik, isiltasun eta soinu-ibar euskaldun langile eta bukoliko hartan. Haurra zenetik Sabine, “Herriko Seme Kuttuna”, bizi eta aditu egin zituen bere lur sinfonikoaren sentsazioak, gero – bere ibilbide musikalean zehar- Euskal Herriarenganako maitasunak eragin eta bere adimen musikalak sortutako euskal abesti eder zorragarriak inspiratu zizkietenak”

2.- BIBLIOGRAFIA¹

I. Argitalpenak

Aurrera mutillak! Gasteiz (1966); *Vicente Goicoechea y Errasti, renovador de la música sagrada.*(1983); *Vicente Goikoetxea en la renovación de la música religiosa* (1984); *La Música en Álava* (1984); *Códices de música medieval en Álava* (argitara gabea); *La Música en Álava* (1995); *La Escuela de Música de Carmelo Bernaola* (2003); *Euskal kantutegia* (2003); Jesús Guridi (2005); Jesús Guridiren “*Sinfonía Pirenaica*” edizioari egindako hitzaurrea. Barcelona: Tritó, 2006, 2007; Iñaki Leturiaga ezizenaz *DEIA*n egindako musika-kritikak (1990-1992); *El Correo* egunkarian “*Territorios de la Cultura*” izenekoan asteroko lankidetzatza (1996-1998); Donostiako “*Musika hamabostaldia - Quincena musical*” deritzanean egindako musika-iruzkinak; Vitoria-Gasteizeko eskuko programetarako egindako iruzkinak.

¹ Sabin Salaberriren bizitza nahiz bibliografia osotasunean jasotzeko begiratu hurrengo liburu hau: Josemari Lopez de Mendizabal: *Sabin Salaberri Urzelai*. (Manuel Lekuona Saria-2007). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008, 141 or.; Manuel Lekuona saria, 25. zk. (Liburua eskuratzeko helbidea: <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/lekuona>)

II. Musika lanak

1. **Orkestra:** *Oroimenez* (1985); *Guridi, ehun urte* (1986); *Go-go argi* (1987)
2. **Ahotsa eta Orkestra:** *Madalen:* tenorra eta orkestra (1984); *Seis canciones vascas:* tenorra eta orkestra (1986); *María, esperando la Navidad:* sopranoa eta orkestra (1986); *Zorigabe:* sopranoa eta orkestra (1986); *Bost Euskal Abesti:* ahotsa eta orkestra (1990); *De brevitae vitae:* korua eta orkestra (1995); *Nerviñon:* tenorra eta orkestra (2001).
3. **Musika-Banda:** *Gurea da* (biribilketa); *Mendirik mendi* (biribilketa); *Ametza* (1990); *Txoriak* (1992)
4. **Korua eta Musika-Banda:** Hiru abesti sakratu: *Sarrera, Piztu da Cristo, Bihotz garbia; Cantata de Zalla* (2000); *Mungia* (2002)
5. **Korua eta talde instrumentala:** *Gurea da* (1969); *Tanpata tanpa:* ahotsa eta folk-taldea (1970); *Mendirik mendi:* korua eta txistu-banda (1973); *Euskaldun bikotea:* korua eta txistu-banda (1984); *Kanta zaharrak:* haurren korua, txistulari-taldea eta trikitixa (1991); *Jolasean:* ahots zuriak eta hai-ze-boskotea (1994); *Mungia:* korua, txistulari-taldea eta musika-banda (2002); *Eskuak elkarri:* bakarlariak, korua, talde instrumentala (2004); *Kanta kantari:* korua, txistulari-taldea eta trikitixa (2007); *Gabonetarako ikuskizuna - Acto para la Nochebuena:* ahotsak eta talde instrumentala; *Iradijerri abes-tuz:* korua eta musika-banda (2007).
6. **Ahotsa eta pianoa:**
 1. **Ahots askotara:** *Egon eta ibili:* hirukote bakarlarria eta pianoa (1985); *Ezpalak:* ahots baxudun korua eta pianoa; *Ibar gailurrean:* laukote bakarlarria eta pianoa (1987); *Jolasean:* ahots zuridun korua eta pianoa (1995); *Días de ilusión:* ahots zuridun korua eta pianoa (2006).
 2. **Ahots bakarlarria:** *Egunen batean* (1965); *Eresia* (1965); *Maritxu, nora zoaz* (1986); Eguberriko hiru abesti: *Ma-*

ría, Eguberria begira (1990); *Aurrak* (1990); *Zeruko Erregea* (1990); *Bart hamarretan* (1994); Bi abesti: *Udazken goiza* (1998), *Isil isilik* (1998).

- 7. Instrumentalak::** *Soinutan*: pianoa (1994); *Ziortza*: organoa (1995); *Eskaintza*: organoa (2001); Tres canciones de Iradier: Hirukote instrumentala: *El arreglito, La jaca de terciopelo, La neguita*; *Ihardunetan*: txistu eta pianoa (2007).

8. Bokalak

1.- Elizakoak

Ahotsa eta organoa: *Gau eta egun* (1969); *Illetak* (1969); *Misas del tiempo de Navidad* (1969); *Misa del tiempo Pascual* (1967); *Oficios de Semana Santa* (1967); *Por la Santa Iglesia; Salbatzaile bat; Santo, santo; Santu, santu; Tu Cruz; Zure etxera*

A capella" ahotsak: *Argi semeak* (1972); *Canto de entrada - 3 a.m.*; *Oración; O zein eder - 4 a. m.*; *Rocíame, Señor; Salmo 42; Santo, santo - 3 a.m.*; *Tú buscas mi amor / Zugana nahiez, Jauna - 4 a.m./ 4 a.b.*; *Zure etxera - 4 a.m.*

Korua eta organoa: *Aita baten semeak* (4 a.m.); *Bibotz garbia* (3 a. ig. / 4 a. m.); *Dios te salve, María* (3 a.z.); *Gure Aita* (4 a.m.); *Ilen artetik; Kanta Jaunari* (4 a.m.); *Piztu da Cristo* (3 a. ig. / 4 a. m.); *Salbatzaile bat* (4 a.m.); *Salmo 41; Santu, santu* (4 a.m.); *Te buscamos, Señor* (196); *Zein gozo ta eder* (3 a. ig. / 4 a. m.); *Zein ona* (4 a.m.); *Zu bila, Jainkoa* (1969)

2.- Gabonak

Ahots zuriak: *A la media noche; Haur baten bila; Horra Mari Domingi*: flauta birekin; *Jesus jaio zan; Joxepe ta María*

Ahots baxudunak: *Belenen sortu zaigu; Birgina maite; Dringilin dron; Hasi dira; Hasiko naz; Nork orain; Oi Betleben*

Ahots mistoak: *Alegra bitez; Belenen sortu zaigu; Gaur dala Gabon Gaba; Marabila bat*: 4 a.m. eta organoa.

3.- Profanoak

Ahots zuriduneko korua: *Agur zaharra; Argi semeak* (1972); *Argizagi ederra* (1987); *Azokara* (1993); *Bai bala ez?* (1989); *Errotan* (1993); *Gau abesti; Hasiko naz*: flauta birekin; *Hirugarren mundura; Jai egunez* (1989); *Lili eder bat; Mendirik mendi; Papar gorrie* (1989); *Zure agurra* (1989)

Ahots baxuduneko korua: *Agur zaharra; Amaren poema; Andre Madalen; Argizagi ederra* (1987); *Arrantzaleak; Begira nago; Bildotsa eta otsoa; De brevitae vitae; Dringilin dron; Egunen batean; El Arrantzal santurtziarra* (2000); *Gau abesti; Gora Araba!; Madalen; Mendi maiteak; Mendirik mendi; Munduko pakea* (Bomba bat); *Ortzeke izarra; Pakea; Rai la la; Txarmangarria*

Ahots mistoduneko korua: *Aberkideak; Agur zaharra; Arrantzaleak; Bertze betekilan; Bi gauza* (1991); *Bibotzez; Bizi ametsetan* (2006); *Bizkaia querida* (2003); *Cantor e ladrao; Erdi erdian; Deun Agate; El arrantzal santurtziarra* (2003); *En medio; Erdi erdian; Euskal dantzariak* (2007); *Gora Araba!; Hau umorea; Catalina; Lekeitio* (2006); *Madalen 2; Mendirik mendi; Munduko pakea* (1991); *On egin!; Río Castaños* (2000); *Ronda de txikiteros* (2003); *Txarmangarria; Urrutira* (2003); *Viñeta barquereña* (1995); *Zer esana*.

Konponketak. Armonizazioak: *Aurrera*: tenorra eta orkestra (Jatorrizkoa: Vallejos Urricelqui); *Maitetxu mía*: tenorra eta orkestra (Jatorrizkoa: Castillo y Alonso); *No te olvido*: tenorra eta orkestra (Jatorrizkoa: Manolo Villar); *Tristes amores*: tenorra eta orkestra (Jatorrizkoa: Muguerza).

9.- Koralak

Agota: 4 a. b. (Jatorrizkoa: José de Uruñuela); *Askatasun ibilkuntza*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Telesforo Monzón); *Aurtxo aurtxo*: bakarlaria eta korua (Jatorrizkoa: Michel Labeguerie); *Batasuna*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Telesforo Monzón); *Bizitz amets*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Raimon); *Campanas de Belén*: 4 a.m. (Herrikoia); *Egia ta gezurra*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Julen Lekuona); *El arreglito*: 4 a.m. (Jatorrizkoa: Sebastián de Iradier); *El arreglito*: korua eta musika-banda (Jatorrizkoa: S. de Iradier); *El arreglito*: korua eta hariak (Jatorrizkoa: Sebastián de Iradier); *Gabon abestia*: korua eta orkestra (Jatorrizkoa: Vicente Goikoetxea); *Galtzaundi*: 4 a. b. (Herrikoia); *Gu gara Euskadiko*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Pantxoa eta Pello); *Haro-tza*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Julen Lekuona); *Ikusi nuanian*: 4 a. b. (Herrikoia); *Kantatuaz*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Amuritz); *La golondrina*: 4 a. b. (Argentinari Herrikoia); *La neguita*: 4 a.m. (Jatorrizkoa: Sebastián de Iradier); *La paloma*: korua eta musika-banda (Jatorrizkoa: S. de Iradier); *La palomita*: 4 a. b. / 4 a.m. (Argentinari Herrikoia); *Maitetxu mía*: korua eta orkestra. (Jatorrizkoa: Castillo y Alonso); *Mendizaleak*: 4 a. b. (Jatorrizkoa: Luis Iriondo); *Nire herria*: korua (Jatorrizkoa: Emiliano Ibargutxi); *No tardes, Tom* (Espiritual beltza); *Zortziko de San Prudencio*: 4 a.m. (Jatorrizkoa: Fresco); *Zaldiarán*: korua eta orkestra (Jatorrizkoa : Luis de Aramburu).

10. Instrumentalak

Amaiur: hariak (Jatorrizkoa: José de Uruñuela); *Andante religioso*: hariak (Jatorrizkoa: Julio Valdés); *Eresia*: hariak (Jatorrizkoa: Aita Donostia); *Jesus gurutzera*: hariak (Jatorrizkoa: Aita Donostia); *Tres canciones vascas*: hariak (Jatorrizkoa: Jesús Guridi); *Goizian goizik*; *Hala baita*; *Hasiko naz*; *Zortziko*: hariak (Jatorrizkoa: Isaac Albéniz).

11. Bestelako lan-sorta

Agur zaharra (konponketak: Sabin Salaberri) 1986; *Aitonaren esana* (konponketak: Sabin Salaberri) 1997; *Amaren*

poema (Salaberri) 1996; *Amets* (Raimon, S. Salaberri) 1975; *Andre madalen* (hitzak: herrikoiak; musika: Sabin Salaberri) 1985; *Antxon* (Sabin Salaberri) 1997; *Aquel amor perdido* (konponketa: Sabin Salaberri) 1987; *El arrantzal santurtziarra* (Sabin Salaberri; testua: Agustín de Velasco) 2001; *Aurtxo aurtxo* (Sabin Sallaberri; M. Labeguerie) 1997; *Batasuna* (Telesforo Monzón; harmonizazioa: Sabin Salaberri) 1977; *Bertze batekila* (hitzak: Daniel Landart; doinua: Gor-ka Knörr; konponketak: Sabin Salaberri) 1997; *Bizkaia que-rida* (harmonizazioa, ahots mistoak: Sabin Salaberri) 2003; *Campos alegres de Vitoria* (konponketa: Sabin Salaberri) 1987; *Cántico* (S. Salaberri) 2007; *Canto a la amistad* (har-monizazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Como esta noche* (har-monizazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Desde lejos (Blancas como palomas)* (harmonizazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Dirua-ren otsa* (konponketak: Sabin Salaberri) 1986; *Egunen batean* (S. Osa, S. Salaberri) 1975; *En el monte Gorbea* (Sa-bin Salaberri) 1993; *Euskaldun bioletea* (Sabin Salaberri) 1985; *Gau abesti* (Sabin Salaberri) 1994; *Gure Aita* (Sabin Salaberri Urzelai) 2006; *Gurea da : txistus, trompas y coro* (Sabin Salaberri) 1981; *Ikusi nuanian* (konponketak: Sabin Salaberri) 1985; *Itxarkundia* (konponketa: Sabin Salaberri) 1997; *Itxasoetan* (I. Eizmendi, X. Salaberri) 1972; *Jai egunez* (herrikoia; Sabin Salaberri) 1991; *El juguete del mar* (orkes-trazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Lehenago bil* (konponketa: Sabin Salaberri); 1997; *Magnificat* (S. Salaberri) 2007; *Maritxu Maritxu* (konponketak: Sabin Salaberri) 1986; *Marcha de los montañeros alaveses* (harmonizazioa eta instrumenta-zioa: Sabin Salaberri) 1987; *Matxintxo Gurea* (konponketak: Sabin Salaberri) 1986; *Mendiko negarra* (konponketa: Sabin Salaberri) 1997; *Mendirik mendi* (Sabin Salaberri) 1976; *Mungia herri kantata: Muge gainean - Koloreak - Argi-ilu-nak - Bide zabarrak-bide bakarrak* (musika: Sabin Salabe-ri; letra: Edu Iriondo) 2002; *Nervión* (Miguel de Unamuno; Sabin Salaberri) 2000; *Ni mendixara* (konponketak: Sabin

Salaberri) 1986; *No te olvido: canto a la madre* (M. Villar; konp., orkestrazioa: Sabin Salaberri) 2000; *Otseña zara* (konponketa: Sabin Salaberri) 1997; *Padre sol* (harmonizazioa, orkestrazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Papar gorrie* (musika: Sabin Salaberri) 2000; *Responsorio breve* (S. Salaberri) 2007; *Río Castaños* (Sabin Salaberri; testua: Agustín de Velasco) 2001; *Ronda txikiteros* (harm. gizonaen ahotsak: Sabin Salaberri) 2005; *Salmo 121* (S. Salaberri) 2007; *Salmo 126* (S. Salaberri) 2007; *Serenata* (harmonizazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Tanpa ta tanpa* (J. Uranga, S. Salaberri) 1975; *Tres canciones de Iradier : La Paloma, La jaca de terciopelo, El arreglito* (Sabin Salaberri) 2002; *Tristes amores* (Muguerza; konponketak, orkestrazioa: Sabin Salaberri) 2000; *Vitoria mía* (orkestrazioa: Sabin Salaberri) 1987; *Zatoz, Jaungoiko* (Sabin Salaberri) 1986; *Zorigabe* (S. Salaberri) 1996; *Zugana naiez, Jauna* (Sabin Salaberri) 1979; *Zure agurra* (Sabin Salaberri) 1994.

12. Argitaratugabeko grabazioak

Aurtxo, aurtxoa (jatorrizkoa: Michel Labegerie; konponketa: Sabin Salaberri) 1999; *Bart hamarretan* (Sabin Salaberri) 1999; *Bi gauza* (Sabin Salaberri) 1997; *De Alava Reina y Señora* (M. Blasco; arr. Sabin Salaberri) 2001; *Eresia* (Sabin Salaberri) 1999; *Himno a San Isidro Labrador* (M. Blasco; arr. Sabin Salaberri) 2001; *Isil isilik* (Sabin Salaberri) 1999; *Madalen* (Sabin Salaberri) 1981; *Pakea* (Sabin Salaberri) 1997; *Tres canciones de Iradier : La Paloma, La jaca de terciopelo, El arreglito* (Sabin Salaberri) 2003; *Udazken goiza* (Sabin Salaberri) 1999; *Zeruko erregea* (Sabin Salaberri) 1999; *Zugana naiez, Jauna* -Andra Mari abesbatzaren eskainia- (Sabin Salaberri) 1994

13. Gainerakoak:

Irakaskuntzakoak: Pianoz lagundutako euskal herri-eresiei buruzko musika-irakurketarako ariketak. (Barcelona: Dinsic Publicacions Musicals S.L.)

Irratsaioak (Gasteiz irradian): Musika-azalpenerako irratsaioak (1984-1990); "Los clásicos. Asteroko Irratsaioa (1990-2007); Musika-azalpenetan astero egindako lankidetzak (2007-2008).

Diskografia: zenbait lan: – [Vitoria-Gasteiz] : DBK Audio SL, L.G. 1997. – 1 diskoa (CD-DA) (69 min., 53 seg.): estereoak ; 12 cm. Eta beste hainbat lan.

Patxi Uribarren Leturiaga

